


# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## Pindar bat aski Maliburen xarma guztia errausteko

Urriko sugarrek utzitako hausterrak hoztu direnean, kontabilitatea egiteko garaia da Kalifornian. Baina ez da segurua hondamendi honen irakaspenik ikasiko dutenik. Malibu, San Diego... arrisku oharrak entzun eta lehengo bidetik jarraitzen duen gizadiaren metafora dirudite.



### MALIBU ETA SAN DIEGO INGURUETAN

Urriari milaka hektarea kixkali dituzten suteak direla medio ikasi dute askok *chaparral* hitza. Jennifer Aniston eta beste mila zinema izarren jau-regiak arriskuan zeudela zioten erreportaje ikusgarrien bidez jakin dugu Santa Ana ko basamortutik iritsitako haize beroak eta inguru horietako paisaia osatzen duen *chaparral* delakoa zirela hondamendiaren kulpan-teak.

*Chaparral* euskaraz “txaradi” da, Morris hiztegiak dioenez. Harluxetek txaradia “basobera” eta “txaraka”ren sinonimotzat jotzen du: “Basobera, zuhaitz motzez edo zuhaixkaz osatutako baso zarratua”. Wikipediak dio hitza ingelesak gaztelaniatik –*chaparro*, olo mota bat– hartu zuela, eta honek euskarazko “txapar”-etik. Mediterraneoan *maquis* deitzen zaion zuhaixka, sastraka eta sasiz osatutako *chaparral* hau da Kaliforniako berezko landaredia. Eta txaradia urriari papera bezala sutu da, 1.500 etxe kiskaliz eta sekulakalerak eraginez.

Kaliforniako garren beroan, ekologiak, giza eskubidez eta oro har politikak aferez okupatzen den *World War 4 Report* blogak ekarri du gogora aspalditik zegoela iragarrita honelako sute bat gertatu behar zuela. Ez halako profesia milenaristagatik, baizik eta Kaliforniako txaradiak betidanik eta sarritan jasan dituztelako suteak.

Abisu ematen aritu direnetako bat Mike Davis da, Columbiako unibertsitateko irakasle, soziologo eta kazetari ezaguna. Lehen ere aipatu izan dira Net Hurbilen Davisen ikerlanak, munduan txabolategiak hedatzeaz, eta beste. Davis San Diegon bizi da, eta bertako suetan ikertuz 1998an plazaratu zuen *Ecology of Fear* liburua, euskaraz *Beldurraren ekologia* edo *Arriskuaren ekologia* eman dezakeguna. Kapituluetak baten izenburua “Malibu sutuko balitz” da.

Hego Kaliforniak mediterraneo motako eguraldia dauka, eta bertan bi-hiru urtez behin suertatzen diren sute txikiagoez gain hamarkada oroz erreketak beldurgarriak gertatzen omen dira. Garrak itzalitakoan, behin eta berriro, ekologiak, mendiaren zainketaz eta arretarik gabe edozein lekutan eraikitzen diren etxeetaz pizten dira eztabaida beroak... baina laster, eraikuntza enpresa handien bulldozerrek beren bidean segitzen dute, mendia urratu eta etxe gehiago eraikitzen.

Beti omen da berdin. 1889an San Diego eta inguruetan 800.000 akre kiskali ziren (akrea hektarea baten 0,4 da). 1930eko hamarkadan ere izan ziren sute galantak, eta haiek amaturitakoan eztabaidatu ei zen ea Malibu, gaur *glamourraren* bihotza den eta orduan baso eta sastraka besterik ez zena, urbanizatu behar zen ala bere hartan utzi. Zer erabaki zuten esan

beharrik ez dago, han diren milaka etxeek erakusten dute.

Geroago, sute handiei izenak ematen hasi zitzaizkien, hain baitira ugariak, eta azken urteotako handiena 2003ko *Cedar* izan zen, 273.000 akre errauts bihurtu zituen. Urri honetakoek denetara 500.000 akre inguru suntsitu dituzte. Hogeita hiru sute nagusien artean *Witchek* 200.000 akre erraustu ditu, *Harrisek* ia 100.000, eta *Ranch* ek 60.000.

### Sua nahi, Schwarzenegger?

Malibun eta oro har “Suteen kostaldea” deitu dion Kaliforniako itsas hegian gertatu behar zuena zuzen asko asmatu zuen Mike Davisek joan den astean *The perfect fire*, “Sute perfektua” plazaratu zuen. Ingelesez *Tom Dispatch* gune aurrerazale famatuan dagoen lan hori gazteleraz ere aurki daiteke *Sin Permiso* gunekoek itzulita.

Mike Davisek kontatzen du urriazaroa direla Kaliforniako suteen aroa. Duela hamar urte urriaren 26 eta azaroaren 7a artean mila etxebizitza baino gehiago errauts bihurtu ziren Pasadena, Malibu eta Laguna Beach-en. Beti urte sasoi honetan.

“Eguraldiak, ekologiak eta urbanizazio burugabeak –idatzi du Davisek– elkar hartu dute historiako su-ekaitzik perfektuenetako bat eragiteko. Hila-beteak dira adituak horretaz ohartuta zeudela”. Hasteko, azken urteotan



“Sundogg” sinatzen duen batek ipini ditu ondoko argazkiok Interneten. Joan den urriari Kaliforniako Malibu inguruetan daude eginak. Batean herritarra ari da gauaren erdian eta bakarrik etxeko tutu malguarekin atarian garretan daukan *pick-upa* ureztatzen. Bere atzeko aldean ikusten da garrak ia etxeraino iritsi zaizkiola. Bigarreanean, suhiltzailea kamioi gainetik begira dago kiskaltzen ari den mendiarri.



*Villa* baten ondoan ari da, eta argazkiaren ezkerreko muturrean ikusten dira bertako jabeak etxea zaintzeko ipinitako kamera eta oharrak: “Kameraz zaindutako eremua”, “Ez sartu” eta “Kanpoan egon” diote. AEBetako eta oro har Mendebaldeko bizimoduaren ikurretako asko biltzen dituzte argazkiok. Kaliforniako sugarrak, aldiz, Mendebaldeko gizarte aberats honen ahultasunaren metafora izan daitezke.

egun hemen ia anekdotikotzat jotzen dute piztailea zer edo nor izan den (...) Sutea aztertzen dute pilatutako erregai masak derrigor ekarri beharreko zerbaitek bailitzan”.

Davisek aztertuta dauka antzina nola erabiltzen zuten sua parajeotako indiarrek, urtero garbiketako su txikiak eraginez hondamendiak saihesteko. Baina holakorik pentsatzea ere ezinezkoa da gaur egun Kalifornian, non mugarik gabeko urbanizazioak jendeen bizilekuak kokatu dituen edonon eta leku denetan.

Milaka etxejabe eta familiok beren jabegoak zaintzea eskatzen diote orain administrazioari. Eta honetan ere sugarrek ironiaz jokutzen dutela dirudi. “Orain –dio Mike Davisek– garretan ikusi dut San Diegoko auzo erresidentzialik aberatsena, Scripps Ranch, eta akordatu naiz duela aste gutxi han bertan bildu zirela Kaliforniako gobernadore Schwarzenegger finantzatu zutenak. Bilkura horretan ahots haserretu eta zekenez mintzatu ziren kontrolik gabeko administrazio gastuen kontra, gutxitzeko eskatuz. Orain suhiltzaile gehiago eskatzen dituzte eta administrazioaren eskuhartze sendoa”.

Mike Davisen kontakizuna irakasten batez borobildu nahiko lukeenak esango luke kontsumo gizarte post-industrialala bere ondorioek kiskali nahi dutela. Schwarzeneggerrek ez dauka erraz kontuak borobiltzen: nola zaindu hobeto zainketarako zerga gutxiago ordaindu nahi duten herritarrak? ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.

aspaldiko lehorterik handiena jasan dutelako inguruotan.

Lehorte erraldoi hori ikerlari batzuek interpretatu dute beroketa globalaren ondorioztat. Landaredian ere ekarri ditu kalte nabarmenak: Kaliforniako hegoaldeko pinudien %90 kakalardo batek jota dauzka eta dagoeneko ihartu ez diren zuhaitzak hiltzorian daude.

Lurraren beroketaren ikonotzat izotz kozkor baten gainean itsasoan galduriko hartz zuria ipini dute komunikabide nagusiek, baina beste latitude askotan ere igarri dira beroketaren arrastoak. Inguruko sintomak interpretatzen jakin behar. Davisek berak joan den otsailean AEBetako hegomendebaldeko idorte kolosalaz honela idatzi zuen: “Beren barneko izerdia

sortzeko adina hezetasunik lortu ezinda, milioika pinu suntsitu ditu azala jaten dien kakalardoak. Baso eta txaradi bizirik gabeko horiek elikatu dituzte Los Angeles, San Diego, Las Vegas eta Denverreko hiriguneek nozitu dituzten garrezko ekaitzak”. Aurreko haiek txiki utzi dituzte orain urrikoak.

Bitartean, etxeak eraiki eta eraiki segitu dute Kalifornia beroko zelai eta mendietan. Azken hamabost urtetan etxegintzako *booma* nonbait ikusi bada, hori Kalifornian izan da. Milaka etxe berri horietako askok ez dute beste ihesbiderik bide estu eta bihurri bat baino... txaradietatik barrena. Horregatik, Davisek eta beste aditu batzuek barre egiten dute komunikabide nagusiak supiztaileen atzetik dabiltzala entzundakoan: “Ikertzaike askok gaur



Z E R B I T Z U A

### Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,  
pertsonalizatua,  
hurbila eta  
etengabea.  
Horixe  
da gure  
konpromisoa.

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL - 943 426 624